

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE


FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Musikaren Hiriak astearte honetan bere lehenengo ikasleak hartuko ditu

*Iribas kontseilariak, Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioa eta "Pablo Sarasate" Kontserbatorio Profesionala dauden instalazioak bisitatu ditu gaur*

Lunes, 05 de septiembre de 2011



Huarte, Escauriaza, Iribas kontseilaria, Garay eta Herreros, Musikaren Hiriaren auditoriumean.

Mendebaldeko Iruñeko auzoan dagoen Nafarroako Musikaren Hiriak astearte honetan, hilak 6, bere lehenengo ikasleak hartuko ditu ikasturtea hastearekin batera. Gune hori Nafarroako Gobernuak sortu zuen espazio berean gradu ertaineko eta goi-gradu musika-irakaskuntzak hartzeko eta, hurrenez hurren, Iruñeko Kale Nagusian eta Agoitz kalean zeuden bi eraikinetan banatuta zeuden.

Hezkuntzako kontseilari José Iribas Sánchez de Boadok instalazioak bisitatu ditu gaur; harekin batera izan dira, hurrenez hurren, Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateen zuzendari nagusi David Herreros eta baita Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusi Iñigo Huarte ere. Gainera, bi kontserbatorioetako zuzendariak ere parte hartu dute: Julio Escauriagak (Goi Mailako Kontserbatorioa) eta Santiago Garay-k (Kontserbatorio Profesionala).

Nafarroa 2012 Planean lehenetsitako jardueretako baten moduan jasotako obrak kubo formako bi eraikin barnean hartzen ditu; lehenengoa, Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioari buruzkoa da eta bigarrena "Pablo Sarasate" Kontserbatorio Profesionalari buruzkoa, eta topagune den kanpoko plaza batetik sarbide independenteak dituzte. Halaber, zerbitzu komunaren zonalde bat dago biezat. Proiektuak 22,4 milioi euroko kostua du.

Guztira 185 gela akustiko independente ditu, eta honako era honetan banatzen dira: sotoa, behe solairua, lehen solairua, bigarrena eta solairu estalia. Haien artean, ganbera-musikako 50 gela nabarmendu behar dira, instrumentuentzako 59 gela, 49 estudio-kabina, koro-orkestrarako 4 gela, 380 lagunentzako auditoriuma eta zerbitzu komunitararako espazio bat. Musikako gela bakoitzak, sabai hotzen sistema berritzaile baten bidez, barnean hartzen ditu: azken belaunaldiko akustika, trenkada-multzoak eta

ate bikoitzak , beirak eta aroztegi bereziak, isilgailuak aireztatzean, zolarriak eta sabai flotatzaileak edo klimatizazio isila.

Gainera, kontserbatorio bakoitzak ditu: liburutegia, mediateka, idazkaritza, atezaintza-erreprografia, komunak eta komun-aurreak, irakasleen gela, bisita-gela, aldagelak, artxiboa, grabatzeko kabina, bulegoak, instalazio-gela eta patioa, beste instalazio batzuen artean. Eraikitako azalera, guztira, 17.213 metro koadrokoa da.

Gune hori Fernández Militino eta Tellechea arkitektoek diseinatu dute, eta obrak Construcciones ACR enpresak gauzatu ditu.

### **803 ikasle 2011-2012 ikasturtean**

2011-2012 ikasturte honetan 803 ikasle matrikulatu dira guztira, Musikaren Hirian: 293 Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan eta 507 "Pablo Sarasate" Kontserbatorio Profesionalean, eta 144 irakaslek eskolak emango dituzte, 72 modalitate bakoitzeko.

Aldi berean, gune horrek ikasturte honetan 15 sail didaktiko izango du (9 eta 6, hurrenez hurren) eta 55 espezialitate (32 Goi Mailako Kontserbatorioan eta 23 Profesionalean).



Musikaren Hirirako sarbidea kanpoko plazatik.